[1] *Jauna ta Jesus da zure sabeleko frutu;*
andra guztien artean bedeinkatua zu.

[2.] *Ama-semeak han dagoz hain apal, hain xume:*
Ama, Andra Maria da, Jaungoikoa ume. R/.

[3.] *Santa Maria Birjina, Jainkoaren Ama,*
Otoitz egin gure alde, Zagoz guregana. R/.

[4.] *Zure beharrean gagoz, Ama, betiere;*
Heriotzako orduan batik bat halere. R/.

† Bedeinka gaizala Jainko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak eta Espiritu santuak.
—Amen.

† Goazen Jaunaren bakean.
—Eskerrak Jainkoari.

Gora, gora, gora hotsegin
Alaitasun ta txaloekin, guztiok poztu eragin.
Agertu da Jaun**goi**koa, Maria**gan**dik sor**tu**a (bis).

Gazteok, arren, abestu: Jaiobarria goraldu,
abots batez eupatu!
*Agertu da Jaun**goi**koa, Maria**gan**dik sor**tu**a (bis).*

Izan bedi onetsia Gizonen salbatzailea
hobenen kentzailea.
*Agertu da Jaun**goi**koa, Maria**gan**dik sor**tu**a (bis)*

JAUNAREN AGERKUNDEA
EPIFANIA (01/06)

ELIZ ALKARTEAREN
domekako elizkizuna

ETA EZ GU TENTALDIRA EROAN
BAINA ATARA GAGIZUZ GATXETIK.

(Gurejauna agurtu ondoren —belauna okertuz edo burua makurtuz—, esan):

—Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua: **ERRUKI, JAUNA**.

—Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua: **ERRUKI, JAUNA**.

—Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua: **EMOIGUZU BAKEA**.

(*Hostia bat eliztarrei erakutsiz, esan:*)

—Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko pekatua kentzen dauana: zorion-tsuak Jaunaren mahaira deituak.

* *Jauna, ni ez naz inor zu nire etxean sar-tzeko, baina esaizu hitz bat eta osatuko naz.*

Jaunartzerako abestia

Gau erdian Zu zara
distira argizkoa;
isiltasun osoan
hor Zure mintzoa. **R/.**

Urratu da mundutik
ilunpe itxia,
sortuazoz zerutik
Zuk argi barria. **R/.**

AINTZA (—Ohargileak)

Emon deiogun aintza Jaungoikoaren izenari, Belengo estalpean aintza ta goraka diharduen aingeruekaz batera, gure artean hainbesteraino eta hainbestetan zikintzen dan Jainkoaren ize-nari...

† Aintza zeruan Jainkoari

- Aintza zeruan (3) Jaunari;
eta bakea (2) lurrean gizonari (bis).

1. Handi ta eder zaitugulako
gora zu!, eskerrak zuri;
zure Semea gu salbatzera
bialdu dozu zerutik.

2. Gugaitik jaio, gugaitik bizi,
gugaitik, Jesus, hil zinan;
gugaitik gora, bizturik zara
Jainko Aitaren argitan

Salmoari oharra:

Jainkoaren unibertsaltasuna sumatzera eroan gaizala salmo honek, eta besteengan arerioak barik senideak ikustera.

(**otoitz hau jesarrita egin daiteke**)

Erantzun salmoa: Sal 71, 1-2. 7-8. 10-11. 12-13



Oharra

Bada konpromiso bat gure beharrizanei erantzutea, eta gure inguruko behartsuei laguntzea. Horren ezaugarri dogu orain egiten dogun dirubatzea: behartsuaren ondoan gagozela adierazten dogu. Hau Jesusengandik beragandik ikasi dogu.

ESKARIAK

† Gure makaltasunen eta mugen barri izanik, guztioi bere ondasunetara dei egiten deuskun Jainkoagana jo daigun, erreguz:

—Elizearen alde: gizabanako guztien berezitasunak aintzat hartu daizan eta bakotxari egin deion dei Jainkoaren ondasunetara, *eskatu deiogun Jaunari*.

—Kristorengan sinisten dogun guztion alde: gure ohitura eta debozinoetan itxita egon ez gaitezan, gaurko munduak luzatzen deuskuzan erronketan Jainkoagana garoazan izarra ikusi daigula baino, *eskatu deiogun Jaunari*.

—Ahalkeriak edo diru-goseak itsututa daukazanek askapen izarra ikusteko aukerea izan

Isaias Profetearen liburutik (Is 60, 1-6)

Jagi zaitez, argitu, Jerusalem,
badator-eta zure argia;
zure gainean agiri da Jaunaren aintza.
Begira, ilunpeak estalduta dauko lurra,
gau baltzak herriak;
zure gainean, ostera, Jauna agertuko da,
haren aintza zure gainean azalduko.
Zure argitara etorriko dira herriak,
zure egunsenti-disdirara erregeak.
Jaso egizuz begiak zeure ingurura eta ikusi:
guztiak alkartu eta zugana datoz,
urrundik datoz zure semeak,
besoetan dakarrez zure alabak.
Hori ikustean, disdiratsu jarriko zara,
bihotza zirraraz eta zabaldurik dozula,
itsasoko aberastasunak zugana etorriko dira
eta nazinoen ondasunak zuri ekarriko deutsuez.
Gamelu-taldeek estalduko zaitue,
Madiango eta Efako dromedarioek.
Sabatik datoz guztiak,
urrea eta intsentsua dakarrezala,
eta Jaunari gora eta gora dinotsoela.

Jaunak esana

Bigarren irakurgaiari
Paulok Jainkoaren ezkutuko asmoen barri emongo deusku: herrialde guztiak dagoz deituak haren argitasunera.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik (Ef 3, 2-3a. 5-6)

Senideok: Jakingo dozue, ziur, Jainkoak bere grazia zuen artean zabaltzeko emon deustan eginkizuna, goi-agerpenez

† Aitaren eta Semearen eta Espiritu santuaren izenean.
—Amen.

† Gabon aldiaren amaieran Jaunaren Agerkundearen jaia ospatzen dogu, senideok, Jainkoa ez dala herri batena edo aparteko gizaki batzuena, gizaki eta herrialde guztiena baino adierazteko. Jainkoak bere argitara deitzen gaitu bere seme-alaba guztiok, eta herrialde guztiak. Baina oztopoak jarten deutsoguz: nahiago doguz, antza, ilunpeak, geure grinen arabera bizi izan gura dogulako-edo.
Jaunaren Agerkundearen jaia ospatzeak, senideok, gure ohikeria eta ameskerietatik atara gaizala, eta honek adierazten dauan unibertsaltasunean abiatu gaizala. Ondo etorri.

Sarrera-abestia

Agur, Maria Belengo, Jesus haurrarekin.
Agur, graziaz betea, Jauna da zurekin.

[1] *Jauna ta Jesus da zure sabeleko frutu;*
andra guztien artean bedeinkatua zu.

[2.] *Ama-semeak han dagoz hain apal, hain xume:*
Ama, Andra Maria da, Jaungoikoa ume. R/.

R/. Maitasun-agerpen
Isiltasun osoan
Hitza gizon sortzen.

OTOITZA

Gutariko bakotxari agertzen zaiakoz
eta herrialde guztiei egiten deutsezu dei
zure argitasunera abiatu gaitezan
senidetasunean bizi izateko.

Baina guk, Jauna, geure bakotxakerian,
besteak menpean jartea bilatzen dogu,
geure nagusikeria azaleratzea,
beste guztiak geure zerbitzuan jartea.

Irakatsi eiguzu, Jauna,
bakotxa bere ezbardintasunean onartzen,
egunerokoan neurritasuna bilatzen
eta gure oinok zeure argitasunerantza bideratzen…
Zeuk gura dozun Izadia eta Gizadia moldatzen.

Bedeinkatu gaizuz
Jainkoaren erregalu zaitugun Urte Barri!

AMAIERAKO ABESTIA

Agur, Maria Belengo Jesus haurrarekin;
Agur, graziaz betea: Jauna da zurekin.

R/. Ahuspez gurtuko zaitue, Jauna, atzerri guztiek.

Emoiozu, Jainko, zure auzia erregeari,
zure zuzentasuna errege-semeari.
Zaindu begi zure herria zuzentasunez,
eta zure gizajoak zuzenbidez. **R/.**

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,
bakea ugari iretargia amatau artean.
Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,
Ibaitik lehor-mugaraino. **R/.**

Tarsisko eta uharteetako erregeek
ekarriko deutsoez eskuerakutsiak,
Arabiako eta Sabako erregeek opariak.
Errege guztiek dabe ahuspez gurtuko,
atzerri guztiek zerbiduko. **R/.**

Onik atarako dau-eta oihuka diharduan jente apala,
eta laguntzailerik ez dauan zoritxarrekoa.
Apalarentzat eta behartsuarentzat izango dau errukia,
salbauko dau behartsuen bizia. **R/.**

HITZAREN LITURGIA

Lehenengo irakurgaiari

Arazo artean bizi izatea Jainkoaren egintzak ikusi ahal izateko oztopo izan daiteke. Baina Jainkoak bere herria baina baita beste herrialde guztiak ere bere argitara eta bere ondasunetara erakarri gura dauz; eta bakotxa bere berezitasunean.

daien, eta haren jarraian abiatu daitezan Jainkoaren ondasunetara, *eskatu deiogun Jaunari*.

—Erasopean, gerra artean edo iheska bizi diranek burua jaso eta euren egoeratik atara leikezan Jainkoaren izarra ikusi daien eta haren argipean egin daien bidea, *eskatu deiogun Jaunari*.

—Jainkoaren argitasuna hartzen dogunok familia arrakalduen, emakume eta ume aurrean erabilienk, eta edozelango preminan dagozanen laguntza eta euskarri izan gaitezan, *eskatu deiogun Jaunari*.

† Gure otoitzak Jesus Jaunak irakatsitakoan indar hartu daian, esan daigun gogotsu, Jesusek berak irakatsitako otoitza:

GURE AITA ZERUETAN ZARANA,
SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA,
ETOR BEDI ZURE ERREINUA,
EGIN BEDI ZURE NAHIA
ZERUAN BEZELA LURREAN ERE.
EMOIGUZU GAUR EGUN HONETAKO OGIA,
PARKATU GURE ZORRAK
GEUK ERE GURE ZORDUNEI
PARKATZEN DEUTSEGUN EZKERO

jakinazo deust-eta bere asmo ezkutua, misterio hau ez jaken iraganeko gizaldiei jakinazo; orain, ostera, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu deutse Jainkoak. Eta hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Barrionari esker, jentilak Kristo Jesusegaz oinordekide dirala, Haregaz gorputz bat bera osotzen dabela eta agintzari beraren partaide dirala.

Jaunak esana

Oharra ebanjelioari (Lk 2, 16-21)
Mateok irudi eta apainduria ederrez emoten deusku egia handien barri. Egin deiogun harrerea ebanjelioari Aleluia abestuz, zutunik.



Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik (Mt 2, 1-12)

Jesus Judako Belemen jaio zan Herodes erregearen sasoian. Aldi haretan Mago batzuk etorri ziran sortaldetik Jerusalemera, itaunka: «Non da jaiobarri dan juduen erregea? Haren izarra ikusi dogu sortaldean eta Bera gurtzera gatoz».
Barri honegaz larritu egin zan Herodes erregea, eta Jerusalem guztia haregaz batera. Orduan, abadeburuak eta lege-maisuak baturik, Mesias

non jaiotekoa zan itaundu eutsen. Hareek erantzun eutsoen: «Judako Belemen, honan idatzi eban-eta profeteak:
"Eta zu, Judako Belem,
ez zara, ez, Judako urietan txikiena;
zugandik urtengo dau-eta buruzagiak,
nire herri Israelen errege izango danak"».
Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu jaken jakin eban zehatz. Ondoren, Belemera bialdu zituan, esanez: «Zoaze, eta jakin arduraz umearen barri, eta, aurkitzen dozuenean, esaidazue niri, neu ere gurtzera joan naiten». Hareek, erregeari entzun ondoren, joan egin ziran. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri jaken, umea egoan lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi ebenean, berealdiko poza hartu eben. Etxean sarturik, umea ikusi eben, Maria bere amagaz, eta, ahuspezturik, gurtu egin eben. Ondoren, euren kutxak edegita, erregaluak emon eutsoezan: urrea, intsentsua eta mirrea.
Gero, Herodesegana ez bihurtzeko albistea amesetan harturik, beste bide batetik joan ziran euren lurraldera.

Jaunak esana

(Ondoren DIRU-BATZEA, egin daiteke. Eta, bitartean, aldarea gertatu, korporala zabalduz eta Gure Jauna ekarriz).